

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

SEGURTASUN SAILA

2010

EBAZPENA, 2025eko apirilaren 24koa, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez aldatzen baita 2025eko apirilaren 2ko Ebazpena, beste ebazpen hau zuzentzen duena: Ebazpena, 2025eko martxoaren 6koa, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia Kidegoetako (Ertzaintza eta Udaltzaingoa) eta Udaltzaingo Zerbitzuetako Oinarrizko Eskalako agentearen kategorian txanda irekiaren bidez sartzeko hautaketa-prozedurarako deialdia egiten duena.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariari buruzko abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuak 18.2.c) artikulua xedatzen duenez, argitaratzeko bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak maila bereko xedapen baten bitartez zuzenduko dira, baldin eta nabarmenak ez badira eta, horiek zuzentzearen ondorioz, dokumentuaren edukia edo esanahia benetan edo itxuraz aldatzen bada.

Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiaren egiturari buruzko martxoaren 30eko 96/2010 Dekretuak eta aplikatu beharreko indarreko gainerako legeek ematen dizkidaten eskumenak erabiliz, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Horrelako hutsak atzeman dira Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiaren 2025eko apirilaren 2ko Ebazpenean, bai euskarazko testuan, bai gaztelaniazko testuan (2025eko apirilaren 10eko EHAA, 70. zk.). Ebazpen horrek zuzendu egiten zituen beste ebazpen honetan ikusitako hutsak: Ebazpena, 2025eko martxoaren 6koa, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia Kidegoetako (Ertzaintza eta Udaltzaingoa) eta Udaltzaingo Zerbitzuetako Oinarrizko Eskalako agentearen kategorian txanda irekiaren bidez sartzeko hautaketa-prozedurarako deialdia egiten duena (2025eko martxoaren 20ko EHAA, 55. zk.). Hori dela-eta, zuzenketa hauek egin behar dira:

A) 2025/1271 (1/41) orrialdean, udaletatik datozen gomendioen zerrendan, Lemoako Udala sartzea.

B) I. eranskinean –DEIALDIKO LANPOSTUAK– hau sartzea:

Udaltzaingoak		
Udala	Lanpostu-kopurua	Ezaugarriak
Lemoa	1	Administrazioko 2. hizkuntza-eskakizuna (euskara), derrigortasun-data iraungita. Lanpostuak Administrazio Bereziko Taldekoak dira, Zerbitzu Berezien Azpitaldekoak, Udaltzain motakoak, C lanbide-sailkapeneko taldekoak, C1 azpitaldekoak; destino-osagarria: 14, berariazko osagarria: 14.902,92 euro urtean.

Bigarrena.– 2025eko apirilaren 2ko Ebazpenaren hirugarren apartatua aldatzea (2025eko apirilaren 10eko EHAA, 70. zk.).

Hau dio:

«Ebazpen hau argitaratzen den egunera arte aurkeztutako eskabideak baliozkoak izango dira, eta interesdunek aldatu ahal izango dituzte, merezimenduen atalean emandako zerbitzuak txertatuz, eskabideak aurkezteko epea amaitu arte.»

Baina hau esan behar du:

«Ebazpen hau argitaratzen den egunera arte aurkeztutako eskabideak baliozkoak izango dira.»

Hirugarrena.– Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez diezaiokete interesdunek Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako Zuzendaritza Nagusiari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, zuzenean aurkara dezakete administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, bi hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Azken kasu horretan, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 14. artikuluan jasotako administrazioarekiko auzien epaitegien lurralde-eskumeneko arauak bete beharko dira.

Arkauti, 2025eko apirilaren 24a.

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusia,
MIREN DOBARAN URRUTIA.